

BANAKETA – KANALAK

Gure enpresa handitzeko hainbat gauza egin beharko ditugu, batez ere ditugun bezeroei tratu ona eman eta gainera bezero berriak ekartzen saiatu. Horretarako kanalak hiru fasetan banatuko ditugu.

1. Informazioa/Komunikazioa

a. Online publizitatea

i. Sare sozialak

- Gaur egun publizitatea egiteko modurik azkarrena sare sozialak erabiltzea da, honekin gure enpresaren produktuaren informazioa eta erabilerak jarriko ditugu. Sare sozialekin gure bezero gazteekin kontaktatuko dugu, gaur egun asko erabiltzen direlako haien artean.

b. Iragarkiak

i. Pertsonen iragarkiak

- Pertsona famatuak erabiliko ditugu publizitatea egiteko, izan ere pertsonengan influentzia handia dute gaur egun. Gure proiektuaren alde dauden pertsonak erabiliko ditugu eta haien sare sozialetan gure enpresaren iragarkiak jartzea eskatuko diegu. Horrez aparte, egiten duten zuzenetan baita jartzea eskatuko diegu. Horren truke dirua emango diegu, aurretik beraiekin negoziatutako kopurua.

c. Paper publizitatea edo propaganda

i. Etxebizitzak

- Etxebizitzetan paperak utziko ditugu gure negozioari buruz jakinarazteko